

HASIERA ORDUA: 19:05

BUKAERA ORDUA: 20:50

PARTE HARTZAILEAK:

23 pertsona (5 emakume, 18 gizon)

ORDEZKARI POLITIKOAK:

Natxo Urkixo (EHBILDU)

Ametz Meatza (EHBILDU)

Jon Ander Altube (EHBILDU)

Juanma Ibarretxe (EAJ-PNV)

TEKNIKARIAK

Almudena Fernandez (Arkitektoa)

Laura Castresana (Arkitekto teknikoa)

Joseba Solaun (Obren arduraduna)

Publikoaren artean

Iñigo Martínez Cerrillo (EH BILDU)

Isabel Bóveda Urioste (EH BILDU)

Herritarra: Zubiko Kurajoko obrei dagokienez, esan du obrari akabera eman behar zaiola, zubitik gertu dauden baranda eta eskuleku batzuk soldatu egin behar direla solte daudelako. Gainera, Apaloetako errekan dauden aihen batzuetan arratoiak babesten dira eta, beraz, aihenak kendu beharko lirateke, arratoiak babeslekurk ez izateko.

Halaber, galdetu du nola banatuko den Arantzarreko espaloia. Bestalde, planteatzen du aipatu egin zela ur hartunea egingo dela eta batzuek dagoeneko egin dutela hartunea Arantzarrera biribilgunetik jaisten den bidetik, baina hartune zaharrak oraindik daude hor eta ondo legoke horiek kentzea, zoladura ipintzea eta argiztapena aldatzea.

Jonan: Zubiko Kurajori dagokionez, berretsi egin du obrari akabera falta zaiola, % 98 dago eginga, baina bankuak, paperontziak eta abar falta direla. Obra ez da jasotzat eman.

Apaloetako errekarari eta arratoiari dagokienez, azaldu du arratoiak mugitu egin direla azken obrenetatik. Arratoi kopurua kontrolatzen saiatzen dira.

Ur hartuneari dagokionez... Gogora ekarri du Latorrondorako aurkeztu zen proiektuaren barruan dagoela hori, baina momentuz proiektua baino ez dela eta epe ertain edo laburrera aterako dela aurrera.

Laura: berretsi egin du Zubiko Kurajon oraindik egiteke daudela azkentzeak, hiri altzariak, loreaintza lanak...

Apaloetako arratoien kontuari dagokionez, esan du zerbait gertatzen den bakoitzean kontratatutako enpresari abisua ematen zaiola, eta enpresak berehala esku hartzen duela. Ere mu horretan esku hartu egin da dagoeneko, baina ezin da esku hartu umeak dauden parkeetan. Halaber, erreka sasiak gaarbitu egin dira, URAk onartzen ez dituen arren horrelako lanak. Aihenak jarri dira ezpondei eusteko, zaila baita eremu hori soropilarekin izatea. Landare horiek mantentze-lan erraagoak dituzten beste batzuekin ordeztuko modua bilatzen ari dira. Espaloiei dagokienez, araudiaren arabera, oinezkoen bide nagusiak gutxinez 2 metro izan behar dituela, eta kasu honetan, asmoa da 2,5 metro uztea beheko aldean eta 2m metro goikoan. Edonola ere, ikusi beharko da nola egin Pagolar kalearekin maldaren aldean batzeko lanak.

Herritarra: esan du han zuhaitz batzuk daudela eta galtzadaren beheko aldekoak kendu egin direla, baina Pagolar kalearekin batzuen den aldean daudenak ez direla kendu. Han kendu beharko diren bi banku daude; edukiontzi baten ondoan dagoen zuhaitzetik gertuago ipini beharko lirarteke. Zuhaitz horiek kendu beharko lirarteke eta Oketa atzeko plazan, Latorro tabernaren aldean, estilo bereko zuhaitz batzuk daude eta ez du inolako zentzurik.

Herritarra: azaldu du Apaloetan bizi dela eta azaldu nahi dio beste herritarrari urteak eman dituztela Udalari garbiketa hori egiteko eskatzen eta azkenean egin den arte. Esan duenez, oraindik egiteke daude alboetan eta zelaian utzi dituzten zuhaixkak. Azaldu du euren finka administratzailea Udalarekin bildu dela eta esan zitzaizkion ezin zirla zuhaixkak kendu lurra mugitzeko arriskua zegoelako. Herritarrek zain jarraitzen dute, badakitelako arratoi asko daudela, baita txakurren zikinkeria ere. Goiko aldean, 8. blokea dagoen lekuan, urtero liztor asko biltzen dituen sasitza dago, eta arriskua dakar horrek, ume txikiak dituzten familia asko daudelako.

Espaloiko obrari eta zera bidea mugitzeari dagokionez, duela 2 urte galdetu zen tuneletik Apaloetako etxebizitzetara doan espaloiarekin. Arazoa da oso estua dela, 2 pertsona elkarrekin gurutzatzen badira, errepidera jaitsi beharra dute Galdetu du espaloia hori zabalago egiteko aukerarik dagoen.

Laura: Apaloetari buruzko informazio gehiago izateko (ibilgua, untzak...) iradoki die Udalarekin harremanetan jar daitezela, eta liztorrei dagokienez, berdin. Arantzarreko obrarekin, edukiontziak mugitu ziren, zabalerari dagokionez ez dira arauak betetzen, baina espaloia zabaltzeko, errepidea estuagotu behar da. Oinezkoentzako bide irisgarria beste espaloitik joango litzateke. Hala ere, zoladura, bidegurutzak, oinezkoen bideak eta abar hobetzen saiatuko dira, baina ezin da zabaldu.

Herritarra: Zenbait gai planteatu ditu:

- Antzokiaren proiektua.

- Kirol pistaren proiektua idaztea.
- Latorroko parke guztietarako ideien lehiaketa.
- Pasabidea kentzea.
- Premiazkoa da Kamaraka kalea asfaltatzea, harategiaren parean oso txarto dago.
- San Martin kaleko arrapala, Extremaduraren etxearen parean, zartatua dago.
- Aukera ederra galdu da Zubiko Kurajoko lur azpiko irteera hobetzeko, oso polita da, baina ez du hobetzen segurtasuna.
- Txakurrentzako parkeak, nola bermatzen da herriko beste zonaldeak garbi egongo direla?

Jonan: berdeguneen berrantolaketari dagokionez, gaia mahai gainean dago, baina ez da ezer zehaztu eta ez da aurrera egin. Jolas eremuko alde berdeko kirol guneari dagokionez, gaia aurrekontuan jaso da, alegia, bada konpromisoa eta hori egikaritzeko dirua.

Antzokiari dagokionez, gaiak aurrera darrai. Aste honetan egongo da arloak koordinatzeko bilera. Legegintzaldia bukatu aurretik, antzokia bideratua eta blindatua egongo da. Altzarraten egingo da eta 5 milioi euroko kostua izango du, gutxi gorabehera. Lehenik eta behin, proiektu kulturala definitu behar da, eta hori da aurreratua. Udalean adostasun oso zabala dago. Asmoa da urtearen hasieran esleipena egitea, eta legegintzaldia bukatu aurretik bideratut uztea. Amets: igarobidearen gaia aurrekontuan jaso zegoen, eta asmoa zen Zubiko Kurajoko obrak aprobetxatzea han esku hartzeko. Arazoa etorri zen Adif eta Renferekin hitz egitean, minimo batzuk exijitu zituztelako, proiektua egin behar izan zelako... Horrek obra garetitu egin zuen eta beharrezkoa da diru gehiago bideratzea lanak egiteko. Jonan: berretsi du 2018an desgertuko dela igarobidea.

Amets: erantsi du goiko igarobidea kentzen denean parkeko harrizko horma hobetuko dela (ezkerreko aldean dagoena).

Jonan: tunelaren gaiari dagokionez, esan du hobetu dutela, euren ustez. Herritarrek euren ekarpenak egin zituzten, baina kontua da berandu iritsi zirela, obra egikaritzen ari zirelako jada. Ekarpenak aztertu egin ziren, baina ezin izan zituzten jaso.

Azkenik, txakurren eta zikinkerriaren kontuari erantzuteko, azaldu du aurreikusi diren parkeetan ere gorozkiak jaso behar direla, txakurrak aske izateko eremuak izan arren. Latorron, Arrañon eta Lamuza parkean egingo dira eta arriskutsu izan daitezkeen arrazetako txakurrei ez zaie sartzen utziko. Esan duenez, herritarrek esan nahi bazuen herriaren beste zonaldeetan ere esku hartu behar dela, ados dago, eta erantsi du txakurrentzako parkeak egiteko proiektuak zilegitasuna ematen duela herriko gainerako zonaldeak garbi izan daitezen aldarrikatzea.

Herritarra: planteatu du duela 15 urte egin zela Latorroko urbanizazioa eta zebrabidea dagoen pinudia hondakindegia bat dela. Duela zenbait urte hondeabatekin berdindu eta garbitu zen lurra. Duela 4 urte ez da ezer egiten han, zaramaz beteta dago ingurua, belarra oso altu eta lehor dago eta arratoiak daude.

Amets: aipatu du proiektu bat zegoela han zuhaitzak landatzeko eta hitza eman dio Laurari.

Laura: azaldu du partzela ez zegoela lorategien udal planaren barruan, ezta lorezaintza kontratuan ere. Aurten, lorezaintzaren barruan sartu da, baina oraindik ez da ezer egin erabakitzeko zegoelako lorategi eremu bihurtuko zen edo kiroletarako eremu. Esan denez, esku hartuko da.

Herritarra: ikastetxeetako obren harira, amiantoak osasunean dituen eraginak ekarri nahi ditu gogora. Azaldu duenez, Latorro ikastetxean eta beste udal eraikin batzuetan amiantoa dago, eta zati bat baino ez da kendu. Udalarari eskatu dio azaldu ditzala Fiskaltzak egin dizkion errekerimenduak, Aretan lan horiek egin behar dituen enpresaren egoera eta, bukatzeko, bere ustez okerra den jarrera aldatzera gonbidatu du Udala.

Jonan: erantzun du ez daudela ados esandakoarekin, amiantoa kentzeko eta amiantoa arriskutsua izan ez dadin eremue desberdinetan nahiko lan egin direlako. Zehazkiago, Latorro ikastetxean, ikastetxearekin lan egin da.

2012-13 urteaz geroztik, fibrozementua daukaten eraikinen inbentario bat dago eta kentzeko lanak egiten ari dira. Aitortu du materialarekin lan egiten duten pertsonen kasuan osasun publikoko arazo bat dela, eta hori dela eta, inbentarioak balio du, adibidez, ez bidaltzeko udal langileak obra batera amiantoa dagoela jakin gabe. Argi utzi du Udala ez dela inoiz saiatu ezer ezkututzen, eta beti egin duela lan Fiskaltzarekin batera, informazioa eman diolako eskatu zaion guztietan.

Aretan amiantoa kendu zuen enpresari dagokionez, adierazi du Udala ez dagoela inondik inora ados enpresak bere langileen osasuna babestu ez izanarekin.

Herritarra: Pagoetako errekan aihenak daude, eta herritarrak galdetu du sare metaliko bat jartzeko aukerarik dagoen.

Laura: erantzun du sistema ugari dagoela ezponda bati eusteko. Kontua da ubideaz ari ga5rela eta URA agentziak dituela horren gaineko eskumenak. Azaroaren 2an URA agentziarekin bilduko dira eta aurreikusita dago 2018an hitzarmen bat sinatzea hainbat arazo konpontzeko: landaredia kentzea, nolako inausketa selektiboa egin behar den...

Herritarra: trenbidearen azpian sartu diren hodiez galdetu du.

Ametz: erantzun du momentuz hartuneak aurreikusita utzi direla.

Vecino: tuneletik ateratzen zen uraz galdetu du, jakin nahi du lubizia eragin dezakeen.

Laura: azaldu du ez zela zaramaren obren ondorio izan, nahiz eta aldi berean egin ziren, oso gertu zegoen leku batean. Mugimendu horren ondorioz, euri ura biltzen zuen hodi bat apurtu zen eta ura eremu horretan kontzentratu zen, beraz, ur emaria handitu, baina hormak ez zuen arazorik izan. Uren zerbitzuak emaria murriztu zuen asteburu hartan bertan, eta astelehenean zuzendu egin zen, euri uretarako hodiaren zati bat ordeztu zen eta arazoa konpondu. Badago arazo puntualen bat, eta hornidura-lanak aprobeztatuta hodiren bat ordeztuko da.

Herritarra: galdetu egin du noiz iritsiko den hondakimn-bilketa pneumatikoa Latorrora. Auzoko kale batzuetako zuhaitzak aldatu dira... Baina ez da goraino iristen. Amiantoari

dagokionez, gaiaren larritasuna ekarri du gogora, baita esporen arriskua ere. Halaber, adierazi du Zubiko Etxeko tirolinak zarata handia ateratzen duela eta gauzez oso gogaikarria dela.

Jonan: tirolinari dagokionez, adierazi du ez dela kexarik jaso, baina aztertuko dutela kontua. Amoiatoaren arazoari dagokionez, argi utzi nahi du ez zaiola garrantzirik kendu nahi gaiari, eta Udalak bizkor eta erantzukizunez jokatu behar duela, egin den bezalaxe.

Natxo: gogora ekarri du ikastetxe publikoek gain, han dagoeneko esku hartu baita, leku pribatuetan ere amiantoa dago (uralita duten etxoletan, adibidez).

Jonan: amiantoa ezin da edonola kendu, protokolo bati jarraitu behar zaio. Gainera, Udalak eraikin batean amiantoa dagoela dakienean, informazioa ematen du.

Ametz: azaldu du amiantoa kentzea oso garestia dela eta adibide gisa jarri du herriko pertsona batek bide batean abandonaturik utzi zuen ur-andela: hori kentzeko, 800-1.000 € ordaindu behar izan ziren.

Herritarra: galdetu du aukerarik ote dagoen Latorroko arrapalaren bi sarrerak eta eskailerak alakatzeo aukerarik dagoen. Zubikora doan tuneleko arrapala ere alakatzea iradoki du, hobeto ikus dadin.

Jonan: gogora ekarri du ekarpenak egin zirenerako berandu zela, obra kontratatua zegoela eta ezin zela aldaketarik egin.

Herritarra: galdetu du zer erabilera duten tuneleko zaintza kamerek, astebururo baitaude eskailerak apurtuta edo geldirik. Halaber, kezu da gazteak hara igotzen direlako eta zikinkeria mordoa uzten dutelako.

Renfeko geltokian arrapala edo igogailua ipintzeko beharra planteatu du, eta, bukatzeko, galdetu du zer gertatzen den Jesus Guridi aldean.

Jonan: erantzun dio Jesus Guridiko obrari heltzeko ez dela diru-partidarik bideratu oraindik. Kamerei dagokienez, funtzionatzen ari dira eta udaltzainek kontrolatzen dituzte. Eskailerak gelditzen dituzten gaztea identifikatzeko balio dute. eskailerak matxuratzen badira, mantentze-lanetarako kontratu bat dago.

Geltokiko irisgarritasunari dagokionez, azaldu du Renfe eta Adif direla geltokien eraberritzean ardurak elkarrekin banatzen dituztenak. Aretan, adibidez, Adifek obra handia egingo du, eta Laudioaren kasuan Renfek egingo du obra. reneferen konrpomisoa da urtea bukatu aurretik lizitatuko duela obra. 3 inplikazio dauzka horrek: behar bezalako igogailu bat instalatzea, eskailerak, sarrera txartel-irakurgailuak berrantontzea, eta nasak zabalitzea tren modelo berrirako prest egon daitezen.

Natxo: adierazi du eraikin nagusiaren zati batean gaur egungoa ordeztuko duen markesina ipiniko dela.

Herritarra: iradoki du kale laburrean pasabidearen azpitik arrapala bat egin daitekeela, edo eraikinetik geltokira, Paquitoren tabernaren paretik.

Jonan: planteatu egin zen, baina ez dute beste sarbide bat kontrolatu nahi, txartelak kontrolatzeko beste makinarik ipini nahi... Igogailua jartzea aurrerapen handia izango da.

Natxo: ezin da arrapala jarri Pacoren tabernaren alderantz, ez lituzkeelako arauak beteko.

Herritarra: hondakin-bilketa pneumatikoaren gaiari heldu dio berriz.

Natxo: azaldu duenez, hondakin-bilketa pneumatikoa iritsi dadin, errekaren ubideko pasabidea egin behar dela Villosa ondoan. Zubia URA erreka egokitzeko egiten ari den lanen barruan dago, eta esleitzear dute. Goikoplazatik Villosako zubira doan obra esleitzen denean (zubia da obraren azken zatia), zubian integratuta egongo da zentraleraino doan hodiaren igarobidea. Orduan aktibatu ahalko dira. Zentralarekin konektatua dagoenean, puntuak lotuko dira eta beste baten batekin osatuko dira.

Herritarra: galdetu du sistemak pena merezi duen.

Jonan eta Natxo: azaldu dute EH BILDU alderdia ez dela sistemaren aldekoa, zurruna eta malgutasunik gabea irizten diotelako, baina, erabakia dagoenez, kudeatu egin behar dela.

Natxo: planteatu du edukiontzi berriarekin arazo bat egongo dela, bilketa pneumatikorako sistema ezin baita horretarako moldatu.

Herritarra: azaldu duenez, La Granja kiroldegiko hobekuntza-lanak gorabehera, umeak dituzten familia asko Amurrionara joaten dira hemengo igerilekuko urak duen tenperatura dela eta.

Jonan: esan du 4 herritarretik 1 kiroldegiko bazkide dela. Onartu du zaharkitua geratzen ari dela eta asko erabiltzen dela. Orain kristaleria aldatu da, gimnasioa hobetu, eta kafetegia zegoen lekuan ipini da. Egia da guraso batzuek neopreno eta guzti erematen dituztela umeak.

Amets: erantsi du urtea bukatu aurretik eskubaloi eta hockey zelaietako zoladura aldatuko dela. Halaber, adierazi du Laudion ez dagoela amentzako igeriketarik.

Jonan: gogora ekarri du duela zenbait hilabete gaia Tokiko Gobernu Batzarrean jorratu zela. Araudian zehaztutako tartean dago tenperatura.

Natxo: adierazi du, agian, kristalen isolamendua ez dela egokia eta horregatik dagoela tenperatura txikia, baina hori ez da gertatuko kristal berriekin.